

## ERTZAINZAKO SINDIKATUEN ADIERAZPENA

Ertzaintzan bizi dugun egoera larriaren berri eman nahi diogu hiritargoari manifestaldi honen bidez. Manifestaldi hau deitu dugu Ertzaintzako sindikatoak garen, eta Ertzainen ordezkari Erne, Esan, Ela, Sipe eta Euspelek. Hau horrela, Ertzain guztiei zabaldu diegu deia, gure eskubideen defentsan manifestaldi handi bat osatzeko.

Azken urteotan, larriak diren murrizketa ugari pairatu ditugu, Ertzainon lan eskubideen alde bakarreko urraketak. Zerumuga 2016 egitasmoa ezarri digute, negoziatzeko inongo aukerarik gabe. Egitasmo honek eta Ertzain-Etxeak ixteak, geografikoki, Ertzainak alde batetik bestera mugitzea dakar, laneko jarduna ere kaltetua izan delarik, hiritarrei eskaini beharreko zerbitzua nabarmen kaltetuz.

Baina, hau ez da guztia. Barne sailak ez du negoziaketarako borondaterik eta hau horrela, egutegi berriak ezarri dizkigu. Uko egiten dio lan hitzarmen berri bat adosteko negoziaketei, 2010 urtetik hona galdu ditugun eskubideen berreskuratzea ahalbidera dezakena.

Egoera honetan, hemen gauden sindikatuok, elkarlanean jarraituko dugu, ekintza ezberdinak bultzatuz. Gure helburua, Segurtasun Sailak bere erabakiak eta bere borondate eza zuzentzea, eta sor digun eta galdu digun errespetuaz oroitaraztea, Ertzainoi eta hiritarrei sor dien, galdu dien errespetua alegia.

Ertzainok osatzen dugun giza taldearen alde egiteko ez bada, modu nabarmenean hobekuntzak bilatzeko ez bada, ez gara inongo mahaira hurbilduko.

Gure aldarrikapen orokorrak jasotzen duena, 2010 urteaz geroztik murriztu dizkiguten akordioen berreskuratzea da:

- \*\* Zerumuga 2016 plangintzaren ezarpena gelditu eta negoziatu.
- \*\* Lan hitzarmen berri bat negoziatzea.
- \*\* Soldata eta Itzarri berreskuratzea.
- \*\* Urteko lan orduak: 1592 ordu.
- \*\* Gai partikularretarako eta antzinatasun egunak berreskuratu
- \*\* Aldi bateko ezintasun egoeren aurrean, % 100-aren ordainketa.
- \*\* Lan Postuak Erregulatzearen negoziazioa. Lekualdatze lehiaketa berri bat non Ertzainek ez duten atzerakadarik ezagutuko beraien gaur egungo lantokiei begira.

Hau da, lortu nahi duguna da, ERTZAINENTZAKO BENETAKO ETA POSITIBOAK IZANGO DIREN AKORDIOAK ADOSTERA IRITSI GAITEZKEN BENETAKO NEGOZIAKETA BATETARA BULTZA SEGURTASUN SAILA.

Inposaketez bete-beteak gaude, gogaituak!

Deitzen gaituzten batzarretara joateko prest gaude sindikatuak, beti ere bertan gai mamitsu eta ertzainen arazoei aurre egiteko bada. Egoera hau iritsi bitartean, bidezkoak diren eskari, ekitaldi eta deialdiekin jarraituko dugu.

Egoera hau zuzentzea Eusko Jaurlaritzaren esku dago.

Bilbon, 2015ko, martxoaren 10an.